# 2014ko azken argitalpenak




# Oroimena

*Alan Baddeley - Michael W. Eysenck*
*Michael C. Anderson*

**Jakintza-arloa:**

PSikOLOGia - Hezkuntza

**ISBN:** 978-84-9860-968-4

20 x 24 cm

462 orr.

**PSP:** 30,00 €

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**
argitalpen zerbitzua
1397 posta-kutxatila
48080 BiLBaO
tfnoa.: 946 012 227
Faxa: 946 012 333
e-posta: editorial@ehu.es
http://www.ehu.es/argitalpenak

**Banatzailea:**
**ELKAR Banaketa**
Portuetxe, 88
20018 dOnOStia-San SeBaStiÁn
tfnoa.: 943 311 821
Faxa: 943 310 453 / 943 310 452
e-posta: eskaerak@elkar.com
http://www.elkar.com

Jendeak jakin-mina du oroimenaren inguruan eta oroimenaren hutsegite ikusgarrien inguruan; adibidez, amnesia duten pertsonen kasuan. Baina oroimenari buruz ikasten ari diren ikasleek, batzuetan, ez dute lortzen jakin-min horrek irautea. arrazoia argia da: oroimena aztertzeko, kontu handiz diseinatutako esperimentuak gauzatu behar ditugu, eta esperimentuok aspergarriak eman dezakete, nahiz eta zientzia zirraragarria izan. zorionez, laborategi-azterketak kanpo munduarekin erlazionatzeko behar beste dakigu oroimenari buruz. Bestela esanda, oroimenari eta haren funtzionamenduari buruz dugun ezagutza zientifi koak lagundu egin dezake jende gehienari biziki interesgarriak iruditzen zaizkion oroimenaren alderdi horiek azaltzen.

ikasleak gogoan hartuta idatzi dute liburu hau munduko ikertzaile garrantzitsuenetako batzuek, eta arloaren ikuspegi sakon, ulerterraz eta erakargarria aurkezten du. Hasieran, ikuspegi orokor labur bat eta oroimenaren hurbilketa zientifi koaren azalpen bat ageri dira; ondoren, oroimen-sistemen oinarrizko ezaugarriak eta haien funtzionamendua azaltzen dira. iraupen laburreko oroimenari eta laneko oroimenari buruzko laburpenen ondoren, kapituluetan honako gai hauek lantzen dira: ikastea, oroimenean antolamenduak duen eginkizuna, munduari buruz dugun ezagutza nola biltegiratzen den, berreskuratzea, eta ahazte intentzionala eta motibatua.

Liburuaren bigarren erdian oroimenari buruz dugun oinarrizko ulermena modu zabalagoan aplikatzen da, oroimen autobiografi koari, amnesiari eta haurtzaroko eta zahartzaroko oroimenari buruzko kapituluekin. Lekukoen testigantzaz eta oroimen prospektiboaz aritu ondoren, azken kapituluan ikasleentzako oso garrantzitsua den gai bat jorratzen da: oroimena nola hobetu.

Liburuko kapituluetako bakoitza hiru egileetako batek idatzi du; hala, erabat aprobetxatzen da haien banako trebetasuna, estiloa eta nortasuna. Horrek liburuaz gozatzeko bidea zabaltzen die ikasleei, egileek berek giza oroimenaren inguruan duten miresmena partekatzeko aukera ematen baitie.

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
ARGITALPEN ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL